




GORDEXOLA



ARMARRIAREN DESKRIBAPENA

Urrezko hondoan zitori horizko kofadun gurutzea eta bost zumar-orri berde San Andresen gurutzea egiten, bat gurutzearen erdian eta beste laurak kantoietan.


DESCRIPCIÓN DEL ESCUDO

En campo de oro, una cruz hueca flordelisada de gules y cinco panelas de sinople en aspa, una en el centro de la cruz y las otras cuatro en los cantones.

AITAMEN HISTORIKOA

Enkarterrietako bailaran dago. Salcedo eta Aiala bailaretakoa izan zan, baina XIV. mendean Lope Sanchez de Gordejuelagaz Jaurreria osatu eban. 1355ean Tello Bizkaiko jaunaren tropek Juan de la Cerda ebela buru Pedro I.a *Ankerra*-ren osteak garaitu zituen –Pedro I.a Telloren anaiordea eta Gaztelako erregea zan–.

Bailara horretan gatazka ugari izan ziran Beranduko Erdi Aroan oinaztarren eta ganboatarren haserreak eta burrukak zirala eta. Gordexola eta Largatxa oinaztarrak ziran eta Somorrostroko Salazar de Muñatonesegaz bat egin eben; Ibargoen eta Montehermosoko Marroquinak, ostera, ganboatarrak ziran. 1455ean Bizkaiko Ermandadeko alkateek merinoa bidali eben Gordexolara ibargoendarrei euren leinuaren kontra egozan zigoren barri emoteko aginduagaz. Barri horri erantzuna emoteko ibargoendarrak merinoaren eta alkateen kontra altxatu ziran, Lope García de Salazarrek *Bienandanzas*-en dinoenaren arabera.



RESEÑA HISTÓRICA

Valle de las Encartaciones. Permaneció bajo la órbita del valle de Salcedo y Aiala hasta constituir Señorío propio en el siglo XIV con Lope Sánchez de Gordejuela. En 1355 las tropas de don Tello, señor de Bizkaia derrotaron a las huestes de su hermanastro Pedro I *el Cruel*, rey de Castilla, encabezadas por don Juan de la Cerda.

Este valle fue zona agitada durante toda la baja Edad Media debido a las frecuentes riñas y guerras entre partidarios de oñacinos y gamboínos. Seguían al primero los Gordejuela y Largacha unidos a Salazar de Muñatones de Somorrostro, mientras que tras el otro se congregaban los Ibargoen y los Marroquines de Montehermoso (Jara). En el año 1455 los alcaldes de la Hermandad de Bizkaia enviaron al merino a Gordejuela con el encargo de hacer entrega a los Ibargoen de las condenas y penas que pesaban sobre este linaje. En contestación, los Ibargoen se levantaron contra el merino y los alcaldes, según se lee en las *Bienandanzas* de Lope García de Salazar.